

ERMUA informazioa

www.ermua.es

Otsailaren 15a, asteazkena



“Ermuarrok ez dugu bigarren mailako herritar legez gu tratatzerik onartuko”

Carlos Totorika. Ermuko alkatea



“Gainerako errepideak: Urberuaga-Berriatua, Ermuko saihesbidea eta Boroa-Igorre, apurka-apurka esleituko dira, ekonomiak eta aurrekontuek ahalbidetzen duten neurrian”

José Luis Bilbao. Bizkaiko Foru Diputatua

Ermuarrok bat eginda, saihesbidea oraintxe behar delako




634 errepide nazionalak Ermutik pasatzean (Gipuzkoa Etorbidean eta VI Mendeurrena kalean) izan ohi duen zirkulazioa.

Zer gertatzen da saihesbiderik ez badaukagu?

Ibilgailu guztien batezbesteko intentsitatea egunero



Ibilgailu astunen batezbesteko intentsitatea eguneko



“Erakusketa honetan, kolore politeko maketa hutsa barik, errealitate bat aurkezten da”



Diputatu Nagusiak saihesbidearen aurkezpenean esandakoa.

Ermuko zirkulazioari buruz Aldundiak eginiko azterketa

Saihesbidea eginda, Ermuko zirkulazioaren 38.600 ibilgailuen %44 MURRIZTUKO litzateke. Horrek esan nahi du Ermuan egunero dagoen zirkulazioaren ia erdia eskualdeko jardueraren ondorio dela, inguruko udalerrien arteko harremanarengatik (Eibar, Markina, Ondarroa, Mallabia...). Beraz, iragaitzako zirkulazioa da, saihestu daitekeena.

Zirkulazioaren beste zati bat, erdia baino apur bat gehiago, helmuga edo irteera Ermuan duten harremanengatik gertatzen da. Trafiko-mota horri mesede handia egingo lioke saihesbideak, ez erabiltzailearen ikuspegitik bakarrik, Zubiaurre, VI Mendeurrena, Bizkaia Etorbidea eta Gipuzkoa Etorbideetan barrena, udalerriko bide na-

gusiaren zirkulazioa arintzen lagunduko lukeelako. Ibilgailu astunen iragaitea aztertzen badugu -horiexek direlako herritarrei eragozpen gehien sortzen dizkietenak- datuak eztaba daitezkin dira:

- Bizkaia eta Gipuzkoa etorbideetan saihesbideak ibilgailuen %90 murriztuko luke.
- VI Mendeurrena-Zubiaurre arteko ardatzean, Ambre-

ra bidean, ibilgailu astunen zirkulazioa %85 murriztuko litzateke saihesbidea edukita.

SAITEC INGENIEROS enpresak Bizkaiko Foru Aldundiarentzat egindako azterketa.

2010eko irailaren 6an, Ermuko saihesbidearen inguruko erakusketaren inaugurazioan Diputatu Nagusia, Garraioko Diputatu andrea, Ermuko Alkatea eta azpiegitura horrekin zerikusia duten beste hainbat agintari egon ziren. Ekitaldi horretan obra horren

premiazotasuna azpimarratu zen, eta José Luis Bilbao diputatu nagusiak proiektuarekiko bere konpromisoa adierazi zuen ondorengo adieraziz: “erakusketa honetan, kolore politeko maketa hutsa barik, errealitate bat aurkezten da”.

Ermuko saihesbidea orain ez edukitzeak Ermuko hainbat sektorerentzat dituen ondorioak

Arlo ezberdinetako herritarrek saihesbidea orain ez edukitzeak beraien bizitzan, jardueran eta, orokorrean, bizi-kalitatean dituen ondorioak azalduko dizkigute.

Zer ondorio duela uste duzu Ermuko merkatari eta ostalarientzat saihesbidea orain ez edukitzeak?



ACHE: Ermuko Merkatari eta Ostalarien Elkar-teen iritziz saihesbidearen proiektua behar beharrezkoa eta ezinbestekoa da Ermuko herri-arentzat.

Ermuak derrigorrez behar du saihesbidea her-ritarren bizi-kalitatean izango duen eragin zu-zenarengatik, egunero hirigunea zeharkatzen duten 30.000 ibilgailuen joan-etorria, gehienak astunak gainera, saihestuko duelako.

Ermuko bideetako segurtasuna handiagoa izan- go da eta kutsadura akustikoa eta ingurume- nekoa asko gutxituko dira. Komunikazio-bide honek izugarri hobetuko ditu udalerriko eta inguruko enpresen komunikazioak eta jardue- ra, eta mesedegarria izango da enpresa berriak ezartzeko.

Saihesbide honi esker pertsonak errazago iri- tsiko dira beraien lanpostuetara, bai eta herriko taberna, denda, jatetxe eta aisia-ekintzetara.

Ermuko herria garbiagoa eta osasungarriagoa bilakatuko da eta bizikidetz-espazioak atsegi- nagoak eta seguruagoak izango dira.

Zer ondorio duela uste duzu Ermuko langileentzat -herrian lan egiten dute- nentzat eta kanpora joaten diren dire- nentzat-, saihesbidea orain ez eduki- tzeak?



CC.OO.: Murrizketa neurri hau guztiz negati- boa da Ermuko biztanleen bizi-kalitatearentzat, hemen bizi eta zirkulazioa jasaten dutenentzat, hemen lan egin eta denbora, dirua eta osasuna desplazamenduetan ematen duen jendearen- tzat, edo lanera joateko hemendik pasa behar dutenentzat. Horregatik indar guztiz exijitzen dugu azpiegiturak hobetzea. Gastu publikoaren

murrizketa-politika hau ez da onargarria, ba- tez ere Aldundiak berak erreforma fiskalik egin nahi ez duenean, gehien daukaten haiek gehia- go ordain dezaten... horrela ez litzateke halako murrizketa gogor eta desegokirik egin beharko. SAIHESBIDEA ORAINTXE BERTAN!



UGT: Komunikazioko azpiegituren eta tekno- logia berrien garapenaren ondorioz aldaketa handiak ari dira gertatzen gizarte aurreratue- tan; horrekin batera lan-merkatuak malgutasun geografikoa eskatzen du eta belaunaldi berrien mugikortasun-ahalmena handiagoa da. Horren guztiaren ondorioz mugikortasun geografikoren eskaria areagotzen ari da lan-arrazoiak direla-eta.

Mugikortasuna areagotzearen fenomeno gero eta gehiago azaltzen da gizarte aurreratuetan, horregatik, mugikortasun horren baldintzak hobetzeak, egunero udalerrian sartu eta irteten diren langileak gusturago egotea ekarriko du eta, ondorioz, enpresen produktibitatea eta ekono- mia hobetzea.

Ermuko Hego-saihesbidea oinarri-oinarrizkoa da langileak beraien lantegietara errazago iri- teko, ez luketelako hiri barruko zirkulazioaren dentsitatearen ondorioz egunero derrigorrez ja- san behar izaten duten atzerapenik izango, ez eta horrek sortzen duen tentsioa, lan-errendimen- duan negatiboki eragiten duena.

Gainera Bizkaiko enpresen lehiakortasuna eta horien ekonomi jarduera hobetzeko balioko du, komunikazio-ahalmen handiko bideekin lo-tzea erraztuko duelako, horregatik berori egiteak ala ez egiteak izugarri baldintzatuko du udalerrian enplegua sortu ahal izatea eta langileen lan- egoera.

Adierazitakoagatik eta saihesbidea egiteko bere garaian eman ziren orotariko arrazoiengatik, UGT sindikatuak bat egiten du Ermuko Udalarekin Biz- kaiko Foru Aldundiari eskatzen ari zaion guztian.

Zer ondorio duela uste duzu Ermuko umeen bizi-kalitatearentzat saihesbi- dea orain ez edukitzeak?

Arantza Contreras, Sallabenteko eskolako gu- rasoen elkarteko ordezkaria eta auzotarra.

Gurasoen ordezkari legeaz uste dut herria ho- rrenbeste ibilgailuk zeharkatzeak egun ditugun zailtasunak, arazoak eta arriskuak jasan beharra sortzen digula.

Gure udalerrian, eta zehatz-mehatz gure auzoan ditugun zailtasun horien adibide batzuk hauexek dira:

- Ibilgailuen joan-etorria handia da une oro baina are handiagoa da puntako orduetan, umeak ikastetxera sartu eta irteten direnean hain justu.
- Udalerria zeharkatzen duena errepide nazio- nal bat denez gero, autoek ahaletan handia egin behar izaten dute seinaleak eta arauak -abiadura, semaforoak, zebra-bideak- erres- petatzeko, eta horrek istripuak eta umeak ha- rrapatuak izateko arriskua sortzen du.
- Errepideak eta bertan dabilzan autoen joan- etorriak kez betetzen du ingurua, eta horrek kalte egiten die bertan dabilzan pertsoneri.
- Ibilgailuen zirkulazioak kutsadura akustikoa sortzen du, eta zarata handia jasan behar izat- en da goizaldetik aurrera.

Zirkulazioa lehenbailehen saihasbidera eraman ahal izanez gero asko hobetuko litzateke auzota- rren bizi-kalitatea, eta gurea jendearen gozame- nera bideratutako udalerriri bat bilakatuko litzate- ke. Berori ondokoetan islatuko litzateke:

- Auto-ilara eta ke gutxiago inguruetan.
- Zarata gutxiago, beraz, lo egiteko orduetan loak hartzea.
- Segurtasun handiago eta arrisku gutxiago oi- nezkentzat, batez ere umeentzat. Era horre- tan umeak autonomia handiagoz hazi eta egu- neroko eginkizunak egin ahal izango litzukete.
- Saihasbidea eginez gero bigarren mailako errepide bihurtuko litzateke errepide nazio- nala, eta horrela auzoa eta udalerria ez lirate- ke, auto eta kamioien iragaitzagatik, nolabait bi zatitan berezita egongo.



Zer ondorio duela uste duzu Ermuan dabilzan garraiolarientzat saihasbi- dea orain ez edukitzeak?

Alberto Horcajada. Garraiolaria: Ermuko sai- hesbidearen exekuzioa geldiarazteak esan nahi du Ermua eta Mallabiko industrialdeetara iri- teko auto-ilara ikaragarriak jasaten jarraitu be- harko dugula Ermuko udalerritik iragaitean, denbora-mugak gehituz eta bezeroekin ditugun konpromisoak betetzeari utziz, horrek garraio- larentzat dakartzan galerekin.



Zer ondorio duela uste duzu Ermuko enpresentzat saihasbidea orain ez edu- kitzeak?



TVA enpresarentzat Ermuko saihasbidea edu- kitzea premia-premiazkoa da materialaren joan- etorriak hobetzeari begira, bai enpresan jasotzen dugun materialari bai kanpora bidaltzen dugu- nari dagokienean.

Gure enpresak esportatzaileak direla kontutan izanik, erabiltzen diren ibilgailuak astunak izat- en dira normalean, eta egungo errepideetako zirkulazioak eta herria zeharkatu beharrak ez du laguntzen kamioiak gure enpresara erraz iristeko; bestalde, enpresak ematen duen iru- diaren ikuspegitik ere, arazo horiek ezer gutxi laguntzen digute beste enpresa batzuekiko le- hiakorrek izateko.

Enpresen lehiakortasunari begira ere, logistika gero eta gehiago baloratzen da hornitzaileak aukeratzeko orduan, batez ere automozioaren arloan.

Horri guztiari ibilgailu astun horien zirkulazioak oinezkoen segurtasunarentzako suposatzen duen arriskua eta ingurumenaren hondamena gehitzen badiogu, argi dago mota honetako ir- tenbideak behar beharrezkoak direna.

ERMUKO UDALAK ESKERRAK EMATEN DIZKIE PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDE GUZTIEI



“Mobilizazio handi batek lehenago ekarriko du saihesbidea Ermura”

Urtarrilaren 18an Bizkaiko Foru Aldundiak Ermuko saihesbidearen obrak atzeratzeko erabakia iragarri zuen, iragaiten ari garen krisialdia arrazoitzat emanez. Carlos Totorika Ermuko alkatearekin hitz egin dugu, gaiaren inguruan zer iritzi duen eta erabaki horren kontra Udalak zer egingo duen jakiteko.

P. Berri txar batekin hasi da urtea Ermuarentzat: saihesbidearen proiektua geldiaraztea. Espero al zenuten?

R. Ez, noski! Ermuarekin eta bere etorkizunarekin hartutako konpromiso oso garrantzitsu bat hautsi delako, eta, gainera, prentsaren bidez jakin dugu.

P. Badirudi obrak geldiaraztearen arrazoitzat krisialdia eman bada ere, beste proiektu garestiago batzuk ez direla atzeratu. Hala da?

R. Aurreikusitako sei proiektuetatik hiru mantendu egin dira, beraz, arazoa ez da ekonomikoa. Dirua badago baina beste obra batzuei eman zaie lehentasuna, nahiz eta, nire ustez, Bizkaiaerentzat hain premiazkoak ez diren eta, gainera, horietako bakoitzak Ermuko saihesbidea egiteko behar den inbertsioaren bikoitza eskatzen duen. Beraz, Ermua Aldundiaren lehentasunetan ez dagoela da arazoa.

Arazoa ez da ekonomikoa; beste proiektu batzuk lehenesten dira, Ermuaren kaltetan.

P. Eta, gainera, Ermuko saihesbidearen proiektua da aurreratuen dagoe-na, ezta?

R. Sei urte baino gehiago daramatza-gu proiektu honetan lanean; helburua da ingurumen-inpaktua ahalik eta txiki-ena izatea eta joan-etorrien arazoak konpontzea; planeamendu orokorra egokitu genuen, dirua dago egiteko... guztia prest dago; xehetasunik txikie-na ere aztertuta dago; egiten hastea besterik ez da falta.

P. Nola eragingo du erabaki horrek ermuarren eguneroko bizitzan?

R. Zoritzarrez bada ere, arriskua, zaratak, larregizko zirkulazioaren deserosotasuna, kutsadura, denbora-galera... jasaten jarrai dezagula nahi dute, gizaldi eta gizaldietan guk horrela jarraitzea. Orain arte nolabait eraman dugu, epe onargarri baten arazoak irtenbidea izango zuelakoan eta saihesbidea egingo zelakoan, baina horrenbeste denbora pasa ondoren, pazientzia amaitu zaigu.

P. Eta zelan eragingo dio udalerrien garapen ekonomikori ?

R. Badakit etorkizuna eraikitze-ko eta enpresa berriak Ermura erakartzeko, lanpostu gehiago sortzeko eta kualifikatuago izateko, konponbideak eskaini behar zaizkiela enpresei; onartezina da lanpostura iritsi edo bertatik irtetea, merkantziak hartzea edo produktua enpresatik ateratzea kalbario bat izatea. Saihesbidea geldiarazteak ekonomikoki sortzen digun kaltea ikaragarria da, erabatekoa esango nuke.

P. Ba al da beste udalerririk Bizkaian gu-reak duen zirkulazioa jasaten duenik?

R. Nik dakidala Bizkaian ez dago 634 errepide nazionalak beste zirkulazio-ko errepide batek zeharkatutako udalerririk, ibilgailuen joan-etorria ingurabide edo saihesbide batekin konponduta ez duenik. Bizkaian ez dago horrenbeste pertsona kaltetuta duen beste herririk, beraien balkoia kamioiz, autoz, kutsaduraz eta zarataz betetako errepide batera begira dagoelako. Hortxe daude Bizkaia Etorbidea, Gipuzkoa Etorbidea, Zeharkale,

VI Mendeurrena, Okin Zuri... Eta hori ez da zirkulazio-kontu hutsa, horrek Ermuko biztanleen bizi-kalitateari eragiten dio zuzen-zuzenean.

Arriskuak, zaratak, larregizko zirkulazioaren deserosotasuna, kutsadura eta denbora-galera jasaten jarrai dezagula nahi dute.

P. Ermua, bestalde, sarbide garrantzitsua da Gipuzkoatik datozenentzat eta, beraz, merkantzia askoren joan-etorria bertatik egiten da. Hori kontutan izanik, ez al duzu pentsatzen Aldundia lurralde historiko osoaren garapena arriskuan jartzen ari dela?

Ez dago Bizkaian 634 errepide nazionalaren zirkulazioko errepide batek zeharkatutako beste herririk. 30.000 ibilgailu baino gehiago iragaiten da hemendik egunero.

R. Bai, noski! Ermua komunikazio-lotune bat da; saihesbideak ez du Gipuzkoa eta Bizkaia-aren arteko iraganbidea bakarrik konpontzen, biak ere Markinako kostaldearekin lotzen ditu. Hainbat beharriari erantzuten dio: errepideen plangintzari buruzko Aldundiaren beraren txostenak “lehiakortasuna hobetzea” aipatzen du; garraio-sareak erabakigarriak



dira guztiz, bai pertsonenak eta bai merkantzienak, eta hau ez da lehiakortasuna gutxitzearen kontua bakar bakarrik, enpresarik puntapuntakoenak gure herrira etortzeko interesa gal dezaketela baizik.

Udal honen indarra egiteko ahalmena, herritarren laguntzaren eta mobilizazio-indarraren neurrikoa izango da.

P. Badirudi Ermuarrak mobilizatu egin direla zuzen zuzenean dargien arazo bati erantzuteko; sarean ere zerbait antolatu da bakoitzaren iritzia eman eta irtenbideak proposatzeko. Zer iruditzen zaizkizu proposamenak?

R. Guztiz garrantzitsua da pertsonen udalerrriaren arazoen gainean daukaten iritzia ematea, parte hartzea, bakoitzaren ikuspegia adieraztea. Gizarte-sareek bizkortu egiten dituzte partaidetza-moduak eta erabiltzeko beste espazio bat dira. Talderen batek egin duen proposamen zehatzari dagokionean bene-benetan uste dut ez duela konponbidea asmatzen.

Autopistaren bidesaria ez ordaintzeak areagotu egingo luke arazoa, jada auto-ilararik handienak dituzten Bizkaia eta Gipuzkoa etorbideetan areagotu egingo litzakeelako zirkulazioa.

P. Hala ere une honetan batasun-irudia ematea ezinbestekoa da. Horretarako, zer eskatzen diezu zuk ermuarrei?

R. Ez dut uste historia idatzita dagoenik. Oraintxe da une egokia herri moduan gure etorkizuna idatzi nahi izateko. Badirudi, gainera, herri-mobilizazioa dela saihesbidea lehenbailehen lortzeko herritarroi geratzen zaigun irtenbide bakarra. Pasibotasunez, seguru, ez duguna ezer lortuko. Gizartearen erantzun argi batek gauzak berraztertzea eramango du Foru Aldundia, horregatik irtenbidea gure eskuetan dago, eta norabide horretan indarra egiteko udal honen ahalmena, herritarren laguntzaren eta mobilizazio-indarraren arabekoa izango da. Horregatik bide hau elkarrekin egiteko eskatzen diot Ermuko herriari, gure garapenarentzat hil ala bizikoa den helburu hau lortzen lagunduko digulako.

Alderdi politiko guztiak aho batez saihesbidearen obrak geldiaraztearen kontra



Bizkaiko Foru Aldundiak Ermuko saihesbidearen exekuzioa geldiarazteko erabakia hartu duenean Ermuarekin zuen konpromisoa hautsi duela ikusita, eta erabaki horrek, gure egungo gara-pena eta, hori baino okerrago, gure gazteen etorkizuna zalantzan jartzen ditue-la kontutan izanda, Ermuaren interesen aldeko gure jarrera tinkoa aho batez erakusteko unea dela uste dugu.

Denok daukagu gure herriaren interesak defendatzeko konpromisoa, bakoitzak geure neurrian eta geure erantzukizunen arabera. Gutxi batzuen isiltasun konplizeak edo gehien-goaren etsipenak bakar bakarrik bilakatuko dute lortezina gure helburua.

Horregatik Diputatu Nagusiaren erabaki ulertezina aldatzeko Udalaren ahaleginekin bat eginik, eta, EAJ/PNV-ren abstentzioa salbu, laguntzeko nahia agertu duten gure herriko indar politiko eta sozialen gehiengoarekin bat, adierazten dugu urtarrilaren 25eko bilkuran Udalba-tzarrak hartutako erabaki guzti guztiak geure egiten ditugula.

Halaber, Ermuko Udalaren esanetara gaude Ermurako saihesbidea oraintxe bertan lortzera bideratutako jarduera guztietan laguntzeko.



Ermuko Alderdi Popularrekook uste dugu saihesbidea premia premiazko beharriazana dela herriarentzat. Herriaren erdigunea zeharkatzen duten ibilgailuen joan-etorri jasanezina arintzeaz gain -horietako asko astunak-, horrek suposatzen duen orotariko kutsadura, segurtasun falta eta ermuarren bizi-kalitatearen murrizketarekin, saihesbidearen proiektua, berez, estrategikoa eta guztiz garrantzitsua da herriarentzat eta bertako herritarrentzat.

Bizkaiko Foru Diputatuak behin eta berriz agindu duen saihesbidea eduki ezker, Ermuak Euskadin duen erdigunetasun geografikoa abantaila estrategikoa izango litzateke udalerria- rentzat. Eta hori ez da huskeria, Uda- letik ahalegin handia egiten ari baika- ra inbertsio aldetik herriaren eredu ekonomikoa aldatzeko, eta auto-osa- gaien industriarekiko menpekotasuna apur bat gaintututa teknologia berriei bideratutako balio erantsi handiko enpresa-egiturarekin osatzeko, zeina merkatu-gune berrietan indarra jarri- ta, kalitatezko enplegua lortzeko gai den. Belaunaldi berrientzako etorki- zuna eraikitzen ari gara eta, horreta- rako, behar-beharrezkoa da saihesbi- dea egitea. Erabat ezinbestekoa.

Hala dela uste dugu eta segurtasun horretan oinarrituta bat egiten eta egingo dugu saihesbidea orain egin dadila aldarrikatzeko antolatzen diren ekimen guztiekin.



Bizkaiko Foru Aldundiak aurre ikusi- tako azpiegitura guztiak egiteko ez da- goela dirurik azaldu eta gero, egindako aurreikuspenak errealak ez direlako, zergaitik eta zein irizpideren arabera erabaki da batzuk egitea eta Ermukoa ez jakin nahi dugu.

BFAre mugikortasun politika erre- pide erraldoien eraikuntzan oinarritu da, inbertsio gehienak Bilbo Handian gauzatu dira, hainbat, frakaso handia izaten ari direlarik. Durangaldeko ga- rraio publikoa ez dago egoera onean, A8ko Bilbo-Ermua linean aurreikusi- tako hobekuntzak hasi gabe daude...

Egoera honen aurrean, aurrera be- girako hausnarketa ezinbestekoa da. Parte hartzean oinarritutako beste politika batetik Ermuak duen arazo larriari irtenbide bat topatu behar diogu. Ermuko auzokideon interesak, kotxe, kamioi zein garapen eredu hau sostengatzen duten alderdiengandik gailendu behar ditugu. Ermutarron bizi kalitate hobera-ko alternatibak

eztabaida parte hartzaile baten bitar- tez bideratu behar ditugu.

Ermua osasuntsuago batengaitik elkarrekin lan egiteko ordua da, konponbideak ez dira errezak. Sorme- na erabiliz irtenbidea topatuko dugu. Gure eskuetan dago.



Ermuko EAJ/ PNVkooi gaizki iruditzen zaigu saihesbideren eraikuntza atzeratze- ko Bizkaiko Foru Aldundiak hartu duen erabakia.

Bizkaiko Foru Aldundiari eta Ermuko Udalari eskatzen diegu –bakoitza- ri bere ahalmenen arabera-, egungo egoera aldatu bezain laster, Ermuari le- hentasuna ematea eta bertako saihesbi- dearen proiektua lehenengoa izatea.



Ermuarrok ezin dugu gehiago ja- san zirkulazioa egunero eta eten- gabe herri erditik pasatzeak sortzen digun sekulako eraso.

Atzerapen honekin Aldundia gure herria ZIGORTZEN ETA KON- DENATZEN ari da berriro ere, begi-bistan den arrazoi politiko batengatik: guri saihesbidearen proiektua ukatzeaz batera Bizkaian

bide-azpiegitura berriak egingo di- rela iragarri du.

Arazoa berehala konpontzeko exi- jiten dugu: zirkulazio astuna herri erditik iragaitea debekatzea, A-8 au- topistatik bidaliz. Aldundiak bere ja- rrera aldatu arte, boikot fiskala egitea proposatzen dugu eta autopistako bi- desaria ez ordaintzea.

Deialdi orokorra egiten diegu herrita- rrei, eragile guztien artean -politiko, sozial eta zibilak- Diputazioa behar- tzeko moduak aztertzea, desobedien- tzia zibila barne.

Ermuko herriak eta ermuarrok urte larregi daramatzagu jada arriskuak, keak, kutsadurak eta kaosa jasaten. Ez dugu gehiago onartuko. Erantzunak behar eta nahi ditugu, eta ez dugu eze- tzik onartuko. DESMARKATU ETA KONTRA EGITEKO UNEA DA!

Ezker Anitza alderditik bat egingo dugu konponbideak ORAINTXE BERTAN lortzera bideratutako edo- zein ekintza eta mobilizazioarekin.

Nola pentsatzen duzu eragingo dizula zuri saihesbidea egitea atzeratzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren erabakiak?

Pedro Alconero García

Gorgonio Alonso

Manoli Prol

Iván Centeno

Pilar Fuertes

Arrate Beitia



Momentu honetan niregan duen eragin handiena egunero trafikoa pasatzen ikustea da; kamioiak horiek inor harrapatzeko dagoen arriskuarekin ez baitira motel joaten; trafikoak berez sortzen duen zarata, auto-ilarak oro har; une honetan langabezia bainago. Horrela ez balitz, eragina handiagoa litzateke, goizago altxa behar lanera joateko, bazkalorduetan sartu irteteko, eta abar... Erabakiak eragin negatiboa du, 2012. urtean errepide nazional batek herri erditik pasatzeak, industrialdean ondo ondoan izateak, eta abar... arazoari premiazko konponbidea eman beharko zitzaiola uste dut.

Erabakiak eragin handia du guregan. Saihesbidea bihar egingo balitz, etzidamu egitea baino hobe litzateke. Nolanahi ere, krisialdian gaudela eta sosarik ez badago, izorratu beharko gara. Erabakiak eragin handia du; behar baino erregai gehiago kontsumitzen baitugu, 40 edo 50eko abiaduran joan ordez txitean-pitean auto-ilaran geldirik egoteak gehiago kontsumitzen baitu; denbora galtzeaz gain, lanera joan behar duenak sarritan ordu bete goizago altxa behar izaten du, beno, joan behar duen leku eta distantziaren arabera, baina tira batatzeko erreferentzia da hori.

Niregan duen eragina handia da Gipuzkoa Etorbide honetan bertan bizi bainaiz. Kotxe eta kamioiak etengabe pasatzen dira eta etxean izugarritzko zarata dut, telebista ezin entzuterainokoa. Horregatik telebista oso altu jarri behar izaten dut. Hemen bertan auzoan ikastetxea dugunez umeekin bidea gurutzatzeak tentsioa eragiten digu, semaforoa gorri dagoenean ere kotxeak pasatzen direnez gero, oso arriskutsua delako. Ez dut ulertzen herrixka txiki eta biztanle gutxiagokoe-tan saihesbidea izatea eta Ermuan hori ez edukitzea.

Eraginik handiena trafikoa da, auto-ilara luzeak egiten baitira. Bestalde, badirudi gauza guztiak Gipuzkoarako direla eta Bizkairako ezer, saihesbidea Eibar-raino egin da eta Ermuan ezer. Atzerapenak kanpoko udal igerilekuei eragiten die, horiek sai-hesbidearen ondoren eraiki be-har baitziren; orain atzeratu edo bertan behera utziko dira. Herriarrontzat kaltegarria da auto-ilara, denbora galtze eta abarregatik, Ermuko errepideak ez baitaude egokituta hainbeste kamioientzat. Kamioiek gurut-zatzeko askotan batek besteari leku egin eta pasatzen utzi behar izaten dio eta aparkaleku gehie-girik ez dugunez, bigarren ilaran kotxea utziz gero, arazoak okerrera egiten du.

Gauza askotan eragiten digu eta bat bera ere ez da ona: tra-fikoan, ingurumeneko poluzio mailan eta dugun zaratan, es-aterako. Onartezina da erabaki hori bere horretan lagatzea, sai-hesbideak aurrera egin dezan borrokatu egin behar dugu, borrokatu, beste aukerarik ez dago. Atzerapenak kalte handia egiten digu, errepideak hobera egingo genuelakoan geunden eta zergatik geldiarazi proiektua onartuta eta hastear zegoenean; krisialdiaren eta murrizketen aitzakiak ez dute balio.

Egia esan, niri iritziz atzera-pena oso gaizki datorkigu; batez ere kutsadura, zarata eta kotxe eta kamioi asko pasa-tzen direnez, horrek dakarren segurtasun ezagatik. Hortaz, gaizki, oso gaizki. Horrez gain, proiektua onartuta eta hastear zegoela esaten zuten, horre-gatik guztiagatik, saihesbidea geldiarazteari gaizki deritzot. Kalte handia egiten digu era-bakiak, batez ere Sallabenteko auzo honetan.

Ermuko Udalak otsailaren 3an Gipuzkoa Etorbidean eta Zu-biaurren jasotako deklarazioak

Ermuarrak saihesbidea oraintxe egitearen alde manifestatzera deituak

Ermuko Udalak manifestazioa antolatu du datorren larunbata otsailaren 18rako, eguerdiko 12:00etan, “Ermuko saihesbidea eta kitto! lemapean.

Orbe Kardinala plazatik irtengo den manifestazioa herriko hainbat ka-letatik zehar ibiliko da, urtarrilean, obrak hastear zeudenean, Aldundiak

saihesbidearen obrak atzeratzeko bere kabuz hartutako erabaki uler-tezinaren kontra dagoela agertzeko.

Zergatik da garrantzitsua joatea?

HIRU ARRAZOI DITUGU MANIFESTAZIORA JOATEKO:

1. Ermuarrok LEGI-TIMITATE guztia daukagulako berdintasunezko tratua exijitzeko Bizkaiko beste herritarrekiko: gure herria da Lurralde Historiko osoan errepide nazional batek zeharkatzen duen bakarra, eta legitimitate hori gauzatu egin behar dugu.

2. Ermuaren histo-rian zehar behin baino gehiagotan ikusi dugulako gure interesen alde manifestatzearen EMANKORTASUNA. 70 eta 80 urteetan herri-arentzat lortutako ekipa-mendu publiko asko gure herriaren interesen alde borrokatuz lortu genituen.

3. Zenbat eta gehia-go joan, handiago izango delako ixilarazi nahi gaituztenei eraku-tsiko diegun BATA-SUNA, eta ondotox daki-gu batasuna eta indarra bat direla.

Ermuko
SAIHESBIDEA
eta
Kitto